



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Zallako Udala

2019/20 urteetako eskolako liburuak eta materiala erosteak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko diru-laguntza.

Aurrekariak

Ikusi da udal honek familiei lagundu nahi diela eskolako liburuak eta materialak erosteak dakartzan gastuak ordaintzen.

Legezko xedapenak

- Udal Diru Laguntzen Estrategia Plana.
- Udalaren Diru Laguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2017ko irailaren 15ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoak.
- 2018ko irailaren 19ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoaren aldaketa.

Honen bidez, Zallako Udaleko alkate-udalburu Juan Ramón Urkijo Etxeguren jaunak

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

«Eskolako liburuak eta materiala erosteak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak» esleitzeko deialdia onestea, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntza hauek 2019. urterako udal-aurrekontuen 2.2311.48003 partidaren kargura emango dira, eta 14.000 euro izango da gehieneko zenbatekoa.
- Diru-laguntza hauen helburua da Zallako Udalak Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako, Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako testuliburuak eta eskolako material didaktikoa erosten laguntzea. Horren bitartez, familiei lagundu nahi zaie Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako testuliburuak eta eskolako material didaktikoa erosteak dakartzan gastuak ordaintzen.
- Hori dela eta, oinarri hauek finkatu dira diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean emateko.
- Deialdi honetan, oinarri arautzaileen arabera 2019ko abuztuaren 1etik urriaren 31ra dagozkion gastuak hartuko dira kontuan.
- Diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da, eta dula-erregistroaren zerbitzuetan aurkeztu beharko dira (HAZ eta Arangune).
- Diru-laguntzak ebazteko gehieneko epea 2019ko abenduaren 31 izango da.
- Halaber, erabaki da deialdi hau Zallako Udalaren informazio-bideen, iragarki-taularen, Udalaren webgunearen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bitartez argitaratuko dela.

Zallan, 2019ko irailaren 12an.— Alkatea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren